



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 20a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzekoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburu izateko Iruñearen hautagaitzari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (12. or.).

—Galdera, jakiteko zer neurri haurtuko dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Antsoain eta Barañaingo herritarrek beren liburutegien onurak jaso ahal izaten ditzaten, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste ote duen lehen tasun handiagoa duela Sanferminetako Museoak Lanbide Heziketako ikastetxeak ekipamenduz hornitzeak baino, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).

—Galdera, Entzierroaren eta Sanferminen Museoan egingen diren jarduketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Partikularren eta Iruñerriko udalen arteko 2005etik 2008ra bitarteko hirigintza-hitzarmenei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzekoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2010eko martxoaren 31n eta apirilaren 15ean eginitako bileretan onetsia.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Terrorismoa da herritarrek gaur egun pairatu behar duten gaitz handienetakoa bat, biktimei eta haien senideei eragiten dien atsekabea izugarria baita; atsekabe hori gizarteak berak ere jasaten du, eta horren aurrean ez dago elkartasuna eta aintzatespena erakustea baino; atsekabe hori erailketen bidez azaltzen da, baina baita mehatxuen, bahiketen, estortsioen eta xantaien bidez ere; fanatikoek, izan ere, horiek denak baliatzen baituzte euren helburuak erdietsiko dituztelako ilusio faltsuarekin.

Zorionez, gizartearen gehiengo handi batek irmotasunez gaitzesten ditu ekintza terroristak, eta hortaz, proposamena aurkeztu duen taldearen ustez ez dago soberan gizarte hori bera ordezkatzaren duten erakundeek, eta zehazki Nafarroako Parlamentuak, terrorismoari aurre egiteko ez ezik ekintza basati horien biktimei ordaina emateko ere balio duten tresnak abian jartzea. Hartara, gure

ustez egokia da, ordaina erabatekoa izan dadin, lege-mekanismoak artikulatzea, ekidite aldera hiltzaile terroristek nahiz haien ekintzeekin pozten direnek eta terrorismoa postulatu politikoak erdiesteko tresna baliagarri gisa babesten dutenek terrorismoa goratzen eta biktimak laidotzen jarraitu ahal izatea.

Sekula baino beharrezkoagoa da erakunde publikoek, baita Parlamentu honek ere, biktimen aldeko konpromiso zehatza izenpetzea, zaurien minari edo senide baten galeraren minari ez dakienez gehitu beste nahigabe bat, hain zuzen ere hiltzaileak omenaldiak jasotzen ikusi beharra edo haien argazkiek gune publikoak betetzea hilketak gertatu diren leku beretan eta hildakoen senideek igaro behar duten leku beretan. Sekula baino beharrezkoagoa da Nafarroako erakundeek indarrak batzea, ekidite aldera gisa horretako ekintzak, ekidite aldera terrorismoak eta bere inguruneak jarrera anbiguoetan babeslekua aurkitu eta, hala, terrorismoak biziraun dezan.

Espainian, abenduaren 30eko 13/1996 Legearen bitartez arautu zen terrorismoaren biktimen-tzako laguntza –ondoren, aurrekontu legeen bidez aldatu izan da–, eta batez ere urriaren 8ko 32/1999 Legearen bitartez, zeina martxoaren 12ko 2/2003 Legeak aldatu baitzuen.

Nafarroan, aldiz, Estatuko araudiak biktimen-tzako ezartzen dituen laguntzak indartzeko eta osatzeko lege-testu berekiak onetsi dituzten autonomia erkidegoetan ez bezala, ez dugu legearen mailako araurik, eta, legebiltzar honen ustez, hori zuzendu beharra dago; izan ere, Nafarroa da terrorismoak gehien zigortutako gizarteetako bat eta ETA banda terroristaren lehentasunezko helburuetako bat. Nafarroak, horrenbestez, gure egina-hala gehitu behar diogu beste batzuenari, biktimenganako aitortpena eta erreparazioa ahalik eta osoena izan dadin Foru Komunitatean ere; denok dugu, izan ere, biktimenganako zor moral eta material bat, kasu askotan nekez ordain daitekeena; baina, gutxienez ere, ahalegina egin daiteke

aintzatespena, laguntza eta elkartasuna ahalik eta handienak izan daitezten.

Parlamentu honen aburuz, erakundeen egina-hala gehitu behar diogu Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek terrorismoaren eta terrorismoa babesten dutenen aurka egiten duten ahalegin adoretuari, biktimek, eragin zaien atsekabearen ordainetan, dagokien tokia har dezaten. Azken finean, pairatu duten atsekabearen ordainetan babes handiagoa eman nahi zaie.

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek xede du omenaldia egitea eta aitortpenik handiena adieraztea ekintza terroristak pairatu dituztenei oro har eta, Nafarroan zehazki, ETaren terrorismoaren biktimei, bai eta ekintza terroristak pairatu dituztenentzako laguntza integrala emateko sistema bat ezartzea ere, inguruabar eta beharizan pertsonal, familiar eta sozialak artatzeko zenbait neurri eta jarduketa artikulatuz Nafarroako Foru Komunitateak arlo horietan esleituri dituen eskumenen esparruan.

2. artikulua. Aplikazio esparrua eta onuradunak.

1. Foru lege hau Nafarroan kaltetuta gertatzen diren pertsona fisiko edo juridikoei aplikatuko zaie, banda edo talde antolatu eta armatuetan eta haiekin loturikoetan sartuta dauden pertsonak gauzaturiko atentatu terroristen ondorioz edo atentatu horiek direla-eta; bereziki, ETA banda terroristan sartutako pertsonak gauzaturikoak, baldin eta aipaturiko egintzak talde edo erakunde terroristak horiek erreibindikatuak badira edo, aurretiazko, aldibereko edo ondorengo gertakariei buruzko interpretazio harmoniko baten bidez, arrazionalki deduzitu ahal bada kalteak terrorismo-jarduera horrek sorturikoak direla eta hala ezartzen bada foru lege honetako 5.1.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halaber aplikatuko zaie Nafarroako lurraldetik kanpo kalteak jasaten dituzten pertsona fisikoak, baldin eta foru lege honen indarraldian zehar nafar-izaera politikoa badaukate eta kontzeptu berarengatik ez badute beste autonomia erkidego baten laguntzarik jaso.

2. Foru lege honen ondorioetarako, kaltetutzat hartuko dira biktimaren ezkontide legez edo izatez ez berezia edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsona, odolbidezko bigarren mailako familiartekoak eta biktimarekin modu egonkorrean bizi eta haren mende dauden pertsonak.

3. Foru lege hau orobat aplikatuko zaie irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakundeei, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimen interesak aldezte eta ordezte.

4. Foru lege honetan ezarritako laguntzen onuradun izanen dira orobat, erregelamendu bidez jasotako moduan eta zenbatekoan, bere ibilgailua atentatu batean edo ihes egiteko erabiltze aldera terroristek atxikitako pertsonak, bai eta mehatxupean edo babespean bizi izateagatik bere lana normaltasunez egiteko zailtasunak dituztenak ere.

II. KAPITULUA

Terrorismoaren biktimen eskubideak

3. artikulua. Kalte-ordainen, laguntzen eta dirulaguntzen zenbatekoak eta ezaugarriak.

1. Lege honetan ezarritako kalte-ordainen, laguntzen eta dirulaguntzen zenbatekoa, oro har, Estatuko Administrazio Orokorrak kasu beretarako ezarritakoen ehuneko 30ekoaren parekoa izanen da; zenbatekoak, guztira, ezin izanen du egin kaltetutako ondasunen balioetik goiti.

2. Foru lege honen babesean emandako laguntzak beste erakunde batzuek ezarritako gisa berekoen osagarri izanen dira. Horrenbestez, onuradunak beste entitate batzuen laguntzak jasotzeko eskubidea baldin badu eta beste entitate horiek emandako zenbatekoa, guztira, Foru Komunitateko Administrazioak emandakoa baino txikiagoa baldin bada, bi laguntzen arteko aldea baizik ez dio emanen honek. Alderik ez baldin badago edo beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa Foru Komunitateak emandakoa baino handiagoa baldin bada, honek ez dio ezer emanen onuradunari.

4. artikulua. Laguntza motak.

1. Ondoko laguntza dagokie biktimei foru lege honen babesean:

- a) Kalte fisikoengatiko kalte-ordainak.
- b) Kalte psikikoengatiko kalte-ordainak, bidezko den kasuetan.
- c) Kalte materialen konponketa.
- d) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste dirulaguntza batzuk.
- e) Osasun, hezkuntza, lan, prestakuntza eta etxebizitza arloko laguntza.

5. artikulua. Laguntza emateko baldintzak.

1. Foru lege honetan ezarritakoa baliatzeko, nahitaez bete behar dira ondoko baldintzak:

a) Eragindako kalteak ekintza terrorista baten ondorio izatea. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek edo kasuan kasuko epaiek ezarriko dute zer den ekintza terrorista edo, bestela, kalifikazio hori berariaz ezartzen duen administrazio eskudunaren ebazpen bidez.

b) Interesdunak salaketa jartzea organo eskudunetan eta Gobernuaren Ordezkaritzak gertakari buruzko ziurtagiria ematea.

c) Interesdunek alde aurretik eskatzea Estatu Administrazio Orokorri araudian kasu beretarako ezarritako kalte-ordainak eta konpentsazioak. Baldin eta eskabidea Administrazio zentralari aurkeztu bazaio eta, nahiz eta foru lege honetan laguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak bete, ez baldin bada eskaria aintzat hartu, eskubidea izanen du eskatzaileak foru lege honetan ezarritako kalte-ordainak, laguntzak eta dirulaguntzak jasotzeko.

d) Interesdunak alde aurretik konprometitzea kasuari buruzko informazio guztia ematera, hala beste administrazio batzuetatik jasotakoari buruzkoa nola kontratua duen aseguru enpresa baten kargura jasotakoei buruzkoa. Halaber, interesdunak konpromisoa hartuko du Foru Administrazio organo eskudunei beharrezkoa den informazio guztia emateko kasuan-kasuan ezarritako fiskalizazioari begira.

2. Artikulu honetako c) eta d) letretan ezarritako baldintzak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez salbuetsi ahalko dira, baldin eta Administrazioak datu horiek ofizioz baditu.

3. Interesdunei terrorismoaren biktima direla onartzeko administrazio ebazpenak baliagarriak izanen dira, betiere, kasuko administrazio espedienteak izapidetzeko eta ebazteko.

6. artikulua. Eskabideak.

1. Foru lege honetan ezarritako kalte-ordainak, konponketak edo laguntzak emateko administrazio prozedura ofizioz nahiz interesdunek eskatuta abiatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak; eskabidean ondokoak jasoko dira: eskatzailearen datu pertsonalak eta kasu zehatzaren aipamena, jasandako kalteen azalpena eta aseguru entitatearen batekin edo batzuekin kontraturik ote zuen, aseguratzaileren sozietatearen izena eta hitzartutako poliza edo polizen zenbakia zehaztuta. Eskabidean orobat jasoko dira lege honen arabera laguntzak jasotzeko izapideak abiatze aldera ezinbestekoak diren datuak eta ziurtagiriak.

2. Foru lege hau baliatzeko eskabideak kasuko atentatu edo ekintza terroristaren egunetik aitzina aurkeztuko dira, edo sendatu ondoren edo ondo-

rioen zenbaterainokoa ezarritakoan, kalte fisikoen edo psikikoen kasuan.

3. Foru lege hau indarrean sartu aurretik ekintza terrorista baten biktima izan diren pertsona guztiak baliatu ahal izanen dituzte foru lege honetan ezarritako laguntzak.

4. Nafarroako Foru Komunitatean, eskabideak ebazteko epea ezin izanen da izan sei hilabetetik goitikoa, Estatu Administrazio Orokorrak laguntza eskabidea ebatzi izana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita. Baldin eta administrazio honek ez baditu espresuki ebazten berari aurkezturiko eskabideak, sei hilabeteko epea zenbatuko da Estatu Administrazio Orokorren administrazio-isiltasuna gertatzen den egunetik aurrera.

7. artikulua. Laguntzen onespena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio foru lege honetan ezarritako laguntzak eta dirulaguntzak onestea; hartara, egin beharreko kreditu transferentzia edo gaikuntzak eginen ditu foru lege honen aplikaziotik heldu diren kalte-ordainei aurre egiteko.

2. Biktimentzako laguntzen funtsezko zati gisa, Nafarroako Gobernuak behar adina lankidetz hitzarmen eginen ditu Foru Komunitatean jarduten diren finantza entitateekin, terrorismoaren biktimei eta kaltetutako pertsonen baldintzarik onenetan eskaintzearen finantzaketa.

II. KAPITULUA BIS

Kalte fisiko edo psikikoengatiko kalte-ordainak, kalte materialen konponketa eta mendekotasun egoeragatiko kalte-ordainak

I. atala

Kalte fisiko edo psikikoengatiko kalte-ordainak eta kalte materialen konponketa

8. artikulua. Kalte-ordainen eta konponketen edukia.

Kalte-ordain gisa, biktimek pairatutako kalte fisiko edo psikikoengatiko laguntzak emanen zaizkie biktimei edo haien senide gertuenekoei, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremana duten pertsonen eta, biktima hilez gero, harekin bizi eta haren mende dauden pertsonen. Kalte materialengatiko konponketak kaltetutako ondasunen titulartze egiten zaizkie.

9. artikulua. Kalte fisiko edo psikikoak.

1. Kalte fisikoengatiko kalte-ordainak emanen dira ondoko kasuetan: heriotza, baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua, ezintasun

iraunkor partziala, aldi baterako ezintasuna eta baliaezintasun gabeko lesio iraunkorra.

2. Kalte psikikoengatiko kalte-ordainak emanen dira ondoko kasuetan: baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa.

10. artikulua. Kalte materialen konponketa eta prebentzioa.

1. Kalte materialen konponketako zenbatekoan ondokoak sartuko dira: pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak, merkataritza edo industriako establezimenduetan edo enpresetako ekoizpen-elementuetan, alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundeen egoitzetan nahiz ibilgailuetan eragindakoak, betiere lege honetan ezarritako baldintzetan eta mugekin.

2. Ekintza terroristek eragindako kalte material konpontze aldera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru lege honen babesean ematen dituen laguntzak Estatuko Administrazio Orokorrek kontzeptu berengatik emandakoen osagarri izanen dira eta, kasua bada, aseguru konpainiek edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako kalte-ordainena.

3. Baldin eta artikulua honetan ezarritako laguntzen onuradunak aseguru entitate baten edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren kalte-ordainik jasotzen badu kontzeptu bera dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kalte-ordainaren zenbatekoa kenduko du laguntzatik. Kalte-ordaina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandakoaren berdina edo handiagoa bada, Foru Komunitateak ez du inolako zenbatekorik ordainduko.

4. Merkataritza edo industriako establezimenduetako edo enpresetako ekoizpen-elementuetako kalteen konponketan sartuko da establezimendu horiek berriz ere funtzionatzen jartzeko beharrezkoa den zenbatekoaren balioa, eta hori ez da eragozpen izanen foru lege honetako 7. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako finantza-entitateekiko lankidetzat hitzarmenak egiteko.

5. Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundeen egoitzetan eragindako kalteen konponketan sartuko dira funtzionamendu-baldintzak lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, hondatutako altzariak eta elementuak barne.

6. Ibilgailuetan eragindako kalteen konponketan muga izanen da behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den gastuaren zenbatekoa. Baldin eta ibilgailua deseginda gelditzen bada edo konponketaren zenbatekoa haren balio erreala baino gehiagokoa bada, gisako ezaugarri teknikoekiko eta

gisako erabilera-baldintzekiko ibilgailu batek merkatuan duen balioaren parekoa izanen da kalte-ordaina. Aritu-txostenean jasota ageriko da, kasuan-kasuan, konponketen edo bestearen orde emandakoaren balioa. Bakarrik konpondu ahalko dira ibilgailu partikularretan eragindako kalteak eta pertsonen nahiz salgaien lurreko garraiorakoek, salbu eta titulartasun publikokoek, pairatutakoak. Kalte-ordaina ordaintzeko ezinbesteko baldintza izanen da ibilgailuak indarrean izatea derrigorrezko aseguru atentatua gertatu den uanean.

7. Ekintza terroristekin lotutako jazarpena, mehatxua edo hertsapena jasaten duten pertsona fisiko eta juridikoek dirulaguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, erregelamendu bidez ezartzen den modan. Orobat ordaindu ahal izango dira mehatxupear edo arrisku-egoeran dauden pertsona fisiko eta juridikoek segurtasun-arrazoiengatik ondasun higigarrietan eta higiezinetan egin behar izan dituzten gastuak.

Nafarroako Foru Komunitatean segurtasun publikoaren arloko organo eskudunak aldeko irizpena eman beharko du segurtasun-sistema horiek ezartzea premiazkoa dela jotzeko, eta baita sistema egokia dela jotzeko ere.

11. artikulua. Pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, ohiko etxebizitza da gutxienez ere urtean sei hilabetez pertsona edo familia-unitate baten egoitza den eraikina. Orobat hartuko da ohiko etxebizitzat baldin eta okupazioa urtean sei hilabetez behetikoa bada baina etxebizitzaren okupazioa hasi zen egunetik iragandako denboraren erdiaren parekoa izan bada gutxienez ere.

2. Pertsona fisikoen ohiko etxebizitzaren konponketan ondokoak sartuko dira: etxebizitzaren galera erabatekoa; egituraren, instalazioetan eta altzarrietan izandako kalteak; eta atentatuaren aurreko bizigarritasun-baldintzak leheneratzeko berritik jarri beharreko norberaren gauzak eta tresnak, salbu eta luxuzko elementuak.

3. Baldin eta kaltetutako etxebizitza ez bada ohiko bizilekua, luxuzkoak ez diren elementuetan eragindako kalteen 100eko 80ko muga izanen du laguntzak; ehuneko hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira jaso izan diren laguntzak.

4. Konponketak betiere hartuko ditu etxebizitzetako elementu pribatiboak. Etxebizitza dagoen eraikineko elementu komunetan eragindako kalte-

ak ere hartuko ditu, baldin eta horiek Nafarroako Foru Komunitatean badaude.

5. Konponketaren zenbatekoa etxebizitzaren jabeen edo konponketa legearen egin edo agindu duten maizterrei edo okupatzaileei ordainduko zaie. Jabetza horizontalaren araubideari atxikitako higiezinetakoko elementu komunetan eragindako kalteen kasuan, konponketaren zenbatekoa jabeen erkidegoari ordaindu ahalko zaio.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behin-behineko ostaturia emanen die ekintza terroristak eragindako kalteak direla-eta bere ohiko etxebizitza aldi baterako erabiltzerik ez dutenei; hartara, ordaindu eginen die kaltetutako etxebizitzaren gisako baten alokairua edo hark onetsitako hotel-establezimendu bateko ostaturialdia konponketa lanek iraun bitartean, baldin eta konponketa lanak ez badira onuradunaren erruz luzatzen.

7. Nafarroako Gobernuak zehaztuko du, kasuko erregelamendu-garapenaren bidez, zer laguntza-mota berezi eman ahalko dien biktimei, jazarpen terroristaren kaltetara, baldin eta biktimek bere etxebizitza edo ohiko bizilekua utzi beharra badute jazarpen horren ondorioz, terrorismoaren biktimei inguruabar horrek ekartzen dizkien kalte ekonomikoak ordaintze aldera.

12. artikulua. Zenbatekoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kalte fisiko edo psikikoengatikoko kalte-ordainak edo kalte materialen konponketagatikokoak eman aurretik, Estatuko Administrazio Orokorrari eskatu behar zaizkio bere araudian kapitulu honetako kasuetarako ezarritako kalte-ordainak eta konpentsazioak

2. Nafarroako Foru Komunitatek 100eko 30. artikuluko Estaturiko Administrazioak emandako zenbatekoak.

3. Kalte materialak konpontzean ezin izanen da inolaz ere gainditu kaltetutako ondasunen balioa.

II. atala

Mendekotasun egoeragatikoko kalte-ordainak

13. artikulua. Kalte-ordainen edukia. Mendekotasuna.

1. Ekintza terroristaren ondoriozko mendekotasun egoeragatikoko kalte-ordain gisa, laguntzak emanen zaizkie biktimei, baldin eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari jarraikiz mendekotasun egoera onartu bazaie.

2. Mendekotasun egoeragatikoko kalte-ordainak emanen dira arlo horretako eskumena duen departamentuak mendekotasuna, zeinahi gradu eta mailatakoa, aitortutakoan.

3. Atal honetan aipatzen den mendekotasun egoera aitortze aldera, departamentuak presako balorazio prozedura bat ezarriko du, egoki iritziz gero balio ahalko duena mendekotasunaren eta horren zergatien eremuko larrialdi egoeretarako.

4. Bateragarriak izanen dira mendekotasun egoera aitortzeagatikoko kalte-ordainak direla-eta jasotako zenbatekoak eta biktimek jasotzeko esku-bidea duten bestelako kalte-ordain oro, non eta ez zaizkion kontzeptu berari zor. Edozein modutan, bateragarriak izanen dira Biktimari Laguntzeko Banakako Programan ezar litezkeenak eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 14. artikuluan aipatzen diren presazio ekonomikoak.

14. artikulua. Mendekotasun egoeragatikoko kalte-ordainen zenbatekoak.

Mendekotasun egoera aitortzeagatikoko kalte-ordainak graduaren arabera ezarriko dira; halatan, ondoko ehunekoaren arabera igoko dira Foru Komunitateko Administrazioak kalte fisiko eta psikikoengatikoko kalte-ordain gisa emandako zenbatekoak, foru lege honetan ezarritakoak:

1. 100eko 30eko igoera III. gradua –mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

2. 100eko 20ko igoera II. gradua –mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

3. 100eko 10eko igoera I. gradua –tarteko mendekotasuna, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

15. artikulua. Mendekotasunagatikoko babes-maila osagarria.

1. Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 7.3 artikuluan ezarritako-arekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak babes-maila osagarria ezarriko du mendekotasuna duten pertsonentzat, baldin eta haien zaintzaile ez-profesionala, aipatu legeko 14.4 artikuluan aipatzen dena, atentatu terroristak bateko biktima suertatzen bada eta ondoko baldintzak batera gertatzen badira:

a) Bien arteko familia lotura egotea eta lotura hori kontuan hartu izana mendekotasunagatikoko

laguntzak lortzeko, arloko foru araubideak ezarritakoaren arabera.

b) Atentatu terroristaren ondorioz zaintzaile ez-profesionala hiltzea edo II. graduko mendekotasun egoera –mendekotasun larria– edo III. graduko –mendekotasun handia–, edozein mailatakoa, aitortzea hari.

2. Artikulu honetan ezarritako babes-maila osagarria 9.000 euroko laguntza bat izanen da, zeina justizia arloko departamentu eskudunaren funts berekien kargura finantzatuko baita eta izaera subjektiborik ez baitu izanen.

III. KAPITULUA Dirulaguntzak

16. artikulua. Dirulaguntzak ematea.

1. Dirulaguntzak eman ahalko zaizkie irabazi asmorik gabeko erakundeei, entitateei, fundazioei eta elkarteei, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimen interesak aldezte eta ordezte, biktimen egoera pertsonal nahiz kolektiboak arintzera bideratutako laguntza programak garatzea edo biktimak nabarmentzeko jarduera programak edo terrorismoaren gaitzaren ezein agerraldiren aurkako gizarte-kontzientziazio eta hezkuntzara bideratutako jarduerak garatzea eta betetzea bilatzen badute, bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak aldeztuz.

2. Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidezko garapenaren bitartez, dirulaguntza horien ematea nahiz dirulaguntzen kontzeptuak arautzeko baldintzak ezarriko ditu.

III. KAPITULUA BIS Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza.

Artikulu berria. Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza.

1. Nafarroako Gobernuak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Heziketa Programa bat sustatuko du, Nafarroako gizarte osoari zuzendua. Programa horrek xede izanen du oinarrizko estrategiak eta edukiak unibertsalizatzea, herritarrek indarkeriarik ezaren, tolerantziaren, demokrazia- ren, herritartasunaren eraikuntzaren eta giza esku- bideen sustapenaren balioak garatze aldera.

2. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki iritzitako iraupe- na izanen duena, terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak

jaso eta islatuko dituen eta gazteak kontzientzia- tuko dituen hitzak ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik duen balioari buruz. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere emanen zaie aukera hori.

IV. KAPITULUA Laguntzaren arloko ekintzak

17. artikulua. Eremua.

Foru lege honek arautzen dituen laguntza- prestazioak ondoko eramuetakoak izanen dira:

- a) Osasun laguntza.
- b) Irakaskuntza.
- c) Lana.
- d) Etxebizitza.

17. bis artikulua. Osasun laguntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Osasunbidearen bitartez, biktimaren nahiz haren gertueneko senideen edo harekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen osasun laguntza hartuko du bere gain, baldin eta laguntza hori ez bada aseguru publiko edo pribatu bidez ziurtatzen. Posible ez den kasuetan eta laguntza beste zentro batzuetan eman behar denean, sorturiko gastuak ordainduko dira.

2. Osasun laguntzan sartuko dira jasandako lesioetatik heldu diren tratamendu medikoa, prote- siak jartzea, kirurgia-operazioak eta ortopedia- beharrianak.

18. artikulua. Laguntza psikologikoa.

Laguntza psikologikoa hiru motatakoa izanen da:

1. Berehalako laguntza psikologikoa, biktimaren nahiz haren gertueneko familiartekoei edo harekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen ematen zaiena. Hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere baliabide berekiak erabiliko ditu edo, bestela, laguntza mota horretan adituak diren beste erakunde edo entitate pribatuak.

2. Ondorioetarako laguntza psikosoziala. Biktim- ek nahiz gertueneko familiartekoei edo harekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen izanen duten eskubidea laguntza hori jasotzeko, eta, medikuaren agindua jaso ondoren, atentatuek era- gindako edo agerian utzitako nahaste psikologiko- ak agertzen diren unetik jaso ahalko da. Behar duten laguntza pertsonala eta soziala ere emanen zaie, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio- ko osasun eta gizarte ongizate arloko eskumena duten departamentuek esku hartuta. Beharrezkoa

baldin bada, hitzarmenak egin ahalko dira entitate edo erakunde pribatuekin, zerbitzu publikoek eman ezin dituzten prestazioak ziurtatze aldera, eta Nafarroako Gobernuak finantzatuko du beharrezkoak diren banakako zerbitzu eta tratamendu horien kostua.

3. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako laguntza psikopedagogikoa, baldin eta, haiek nahiz haien gertueneko familiartekoez eta haiekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen pairatutako atentatu terrorista baten ondorioz, ikaskuntza arloko zailtasunak edo gizarte-egokitzapeneko arazoak badituzte. Laguntza hori ere doakoa izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa zerbitzuek bere gain hartuko baitute.

19. artikulua. Ikasteko beka eta laguntzak.

1. Ikasteko laguntzak emanen dira baldin eta, ekintza terrorista baten ondorioz, ikasleak beka nahiz haren gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek kalte pertsonalak –garrantzi berezikoak nahiz bere ohiko lanbidean aritzeko ezgaitzen dituztenak– jasan badituzte. Kalte horien garrantzi berezia baloratzean, pairatutako lesioek biktimaren bizitzan eta familia-ekonomian dituzten ondorioei erreparatuko zaie. Betiere, baliaezintasuna dakarten lesioak edo heriotza gertatzen denean.

2. Ikasteko laguntzetan sartuko dira hala zerbitzu akademikoaren tasak ordaintzera bideratutakoak nola eskolako materialeko, garraioko, jantokiko eta, kasua bada, familiaren etxebizitzatik kanpo bizitzeko gastuak.

3. Laguntza horiek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan emanen dira, baina aparteko kasuetan beste erkidego batzuetako ikastetxetara hedatu ahalko dira, eta lanerako prestakuntza, lanbide heziketa edo unibertsitate ikasketak bukatu arte luzatuko dira, baldin eta errendimendua –gerta litekeen atzerapen psikopedagogikoa onartuta– egokitzat jotzen bada.

4. Ikasleak ezin izanen du jaso ikasturte bakoitzeko beka bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean egin zenbait ikastaro edo karrera. Bateriaezinak izanen dira terrorismoaren biktimei emandako beka eta beste administrazio publiko batzuek edo erakunde pribatuek kontzeptu beragatik emandakoak.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa Hezkuntza arloko departamentu eskudunak lehentasuna emanen die terrorismoaren biktimei diren ikasleei emandako laguntzei eta bekei, eta, salbuespenez, gainontzeko ikasleei oro har emandako zenbatekotik goitikoak izatea ezarri ahalko

du, familia-unitatearen errentaren muga arabera, zeinetan ez baitira aintzat hartuko foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz emandako laguntzak eta kalte-ordainak.

6. Ikasle horientzako ikasteko beka eta laguntzak kasuan kasuko deialdian ezarritako prozedurari eta epeei jarraikiz eskatu eta emanen dira.

20. artikulua. Lan arloko laguntzak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ekintza terrorista baten ondorioz bere lana arazorik gabe egitea eragozten dieten kalteak pairatu dituzten pertsonen lan arloan laguntzarik onena emate aldera, birlaneratzeko planak eta autoenpleguko programak –doakoak betiere– taxutuko ditu, pertsona horiek hobeki egoki daitezen lanera. Halaber, egoki irizitako laguntzak sortuko ditu, ukituei enpresa berriak sortzen laguntzeko, eta orobat bultzatuko du ezen, enpresen erantzukizun sozial korporatiboaren barruan, kontratatzeko lehentasuna izan dezaten terrorismoaren biktimei.

Arlo horretako eskumena duen departamentua aduraturako da programa eta plan horiek sortzeaz.

21. artikulua. Etxebizitza eremuko laguntzak.

Ekintza terrorista batetik zuzenean edo zeharka erortzen diren etxebizitzaren premia bereziak kontuan hartuko ditu kasuan kasuko administrazio publiko eskudunak, eta hauetarako aukera ematen duten bitartekoak erregelamenduz garatuko ditu:

1. Atentatu terrorista batek kaltetutako pertsonen lehentasunez eskuratu ahal izatea babes ofizialeko etxebizitza bat, arlo horretako foru araudian kasu horietarako egiten den erreserbari jarraikiz.

2. Ekintza terrorista baten ondorioz ezgaitasunen bat duten pertsonentzat ohiko etxebizitza egokitzea, hori bada komeni dena. Horretarako erregelamendu bidez ezarritako dira egokitzapen-gastuei aurre egiteko dirulaguntzak.

3. Babes ofizialeko etxebizitzak trukitzea edo, hala egokituz gero, kalifikazio hori kentzea, terrorismoaren eragina nozitu izanagatik, ez bestelako arrazoiengatik, etxebizitza aldatzeko justifikazioa duten pertsonentzat.

21. bis artikulua. Ekintzak sustatzea.

1. Nafarroako Gobernuak izaera osagarria duten jarduerak bultzatuko eta sustatuko ditu, ordaina osorik jasotzeko eta laguntza integrala emateko foru lege honetan ezarritako xedeak hobeto bete ahal izateko komenigarriak edo beharrezkoak badira.

2. Sustapen-politika horren helburua elkarreek eta erakundeek sustatutako egitarauak eta jarduerak bultzatzea izanen da, egitarau eta jarduera horien xedea honako hau denean: batetik, biktimei arreta eta giza laguntza ematea, lagunekin eta familiakoekin batera epaiketetara laguntzea, terrorismoaren biktimei orientazio edo laguntza psikosoziala ematea; edo, bestetik, gai honi buruzko foroak, ikastaroak eta mintegiak egitea eta hezkuntzara edo balio etiko eta demokratikoen sustapenera bideratutako bestelako jarduera eta proiektuak lantzea.

3. Aipatutako laguntzen onuradun izanen dira ohiko jarduera terrorismoaren biktimen eremuan gauzatzen duten erakundeak eta elkarrearen egoitza Nafarroako Foru Komunitatean baldin badute, bai eta eremu geografiko horretatik kanpo egon arren, beren kideen artean ekintza terroristak Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldearen barruan nozitu dituzten herritarrak dituztela behar bezala egiaztatzen duten elkarrearen egoitzari dagokionez, terrorismoaren biktimei laguntzeko batzordeak ezarri beharreko tresnak ezarriko ditu hori ahalbidetzeko.

V. KAPITULUA

Ohorezko sariak eta elkartasun funtsen bermea

22. artikulua. Sariak ematea.

Nafarroako Gobernuak, kasuan-kasuan gertatzen diren inguruabarrak alde aurretik baloratuta, arlo horretako foru araudian ezartzen diren sariak eman eta ohoreak egin ahalko dizkie biktimei eta terrorismoaren aurka nahiz balio demokratikoen defentsan nabarmendu diren erakundeei eta entitateei, nafar gizarteak haiei elkartasuna erakuste aldera eta Nafarroako erakundeek, Gobernuak ordezkatura, aitorpena erakuste aldera.

23. artikulua. Elkartasun funtsen bermea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, biktimen beharrian lehentasunezko eta berehalakoenei erantzuteko adina funts ziurtatze aldera, ekonomia arloan hartu beharreko neurriak hartuko ditu funtsa bideragarria izan dadin biktimek, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, kasuan kasuko kalte-ordainak jaso arte.

VI. KAPITULUA

Enplegu publikoa

24. artikulua. Langile publikoak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioen zerbitzuko langile, irakasle, osasun eta ikerkuntza

arloko langile diren biktimei behar diren eskubideak, baimenak eta lizentziak, bai eta administrazio-egoerak ere onartuko zaizkie, biktima direla frogatzen baldin bada, kasuko eremuko araudiaren esparruan, eragingarria izan daitezzen haien babesa eta laguntza integrala jasotzeko eskubidea. Halaber, lanpostua atentatuak kaltetutako langilearen berezitasun fisikoetara eta psikologikoetara egokituko dela ziurtatuko da, bai eta haren egoerari ondoen egokitzen zaion lanpostura atxikiko zaiola ere, eta herriz aldatzea ekidinen da, non eta interesdunak ez duen espresuki eskatzen.

VII. KAPITULUA

Zerga arloko neurriak

25. artikulua. Zerga-neurriak.

Nafarroako Gobernuak, zerga arloan dituen eskumenen esparruan, egoki irizitako zerga-onuren ezarpena sustatuko du terrorismoaren biktima direnen alde eta, atentatuaren ondoriozko heriotza kasuan, ezkontidearen edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsonaren eta seme-alaben alde, baldin eta heriotzaren unean biktimarekin modu egonkorrean bizi eta ekonomikoki haren mendean bizi baziren.

VIII. KAPITULUA

Terrorismoaren biktimei laguntzeko batzordea

26. artikulua. Sorrera, osaera eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honen behar bezalako garapena lortze aldera, Nafarroan terrorismoaren biktimei laguntzeko batzordea sortuko du, legea indarrean sartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Batzordea kide anitzekoa izanen da eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikiko zaio.

2. Batzordea lehendakari batek, lehendakariorde batek, zazpi kidek eta idazkari batek osatuko dute. Lehendakaria departamentuko kontseilaria izanen da. Lehendakariordea barne zuzendari nagusia izanen da. Kide izanen dira Barne Departamentuko ordezkari bat, Gizarte Gaietarako Departamentuko ordezkari bat, Osasun Departamentuko ordezkari bat, Etxebizitza Departamentuko ordezkari bat, Hezkuntza Departamentuko ordezkari bat eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ordezkari bat. Kideak Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioak izanen dira, arloko burutza dutenak eta arlo bakoitzeko kontseilariak horretarako izendatuak. Batzordeko idazkari izanen da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Depar-

tamentuari atxikitako funtzionario bat, batzordeko lehendakariak izendatuta.

3. Batzordeak berak ezarriko du, egiten duen lehen bilkuran, zer funtzionamendu izanen duen.

4. Batzordeak ondoko eginkizunak izanen ditu, foru lege honen babesean Nafarroako Gobernuaren berariazko erabaki bidez esleiri dakizkikiokkeen beste batzuek gain:

a) Kasuan kasuko informazio eta laguntza tekniko zehatza ematea foru lege honetan aipatzen diren terrorismoaren biktimei eta familiarrekoei, legediarekin bat jaso ditzaketan laguntza publiko guztiak izan ditzaten eskura.

b) Sustatzea eta bultzatzea ezen Nafarroako Gobernuko departamentuek egiten dituzten dirulaguntzei eta laguntzei buruzko deialdiek kontuan hartuko dutela foru lege honetan ezarritakoa eta foru lege honetan ezarritako laguntzei dagokienez lehentasuna izanen dutela terrorismoaren biktimek, deialdi bakoizean ezarritako laguntzek esku-ratzerakoan.

c) Foru lege honetan jasotako neurrien ordezkioak aztertzea, biktimei eta haien familiarrekoei ahalik eta ordainik onena emateko helburu nagusia lortze aldera.

Lehenengo xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumenean esparruan ezarriko du behar adina kreditu gaitzea foru lege honetan ezarritako laguntzei aurre egiteko.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, erregelamendu bidezko garapenaren bidez, foru lege hau aplikatze eta garatze aldera kalte-ordainen zenbatekoak edo zenbateko horien ehunekoak eta egoki diren gainontzeko elementuak eguneratu ahal izan ditzan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak eta Biktimei Laguntzeko Batzordeak –haren funtzionamendua foru lege honetako VIII. kapituluak arautzen du– pertsona mehatxatuen edo babestuen inguruabarrak ezarriko dituzte, kasuan-kasuan aplikatu beharreko laguntza mota zehazte aldera eta, laguntza horiek ekonomikoak izanez gero, zer zenbateko dagokien zehazte aldera.

Laugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa jasotzen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek uko egiten baldin badiote haien ikastetxeetan foru lege honetako 16.bis.2 artikuluan ezarritako programa zabaltzera, galdu ahalko dituzte dirulaguntzak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Foru lege honetako 18.3 artikuluan biktimek ezartzen den osasun laguntza ziurtatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ziurtatuko du badagoela gutxienez ere psikologo bat –gaitasuna eta ekintza terroristetatik heldu den krisi egoeretan eskarmentua duena– laguntza eman ahalko diona edozein biktimari, bai Nafarroako Foru Komunitatean bai hortik kanpo.

Xedapen gehigarri berria. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Batzordeak batzordea eratzeko bilkuran bertan zehaztuko du zer modutan parte hartuko duten batzordean Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak duten terrorismoaren biktimeen elkarteek, zeinek, betiere, ahotsa izanen baitute, baina ez botorik.

Xedapen indargabetzailea. Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapenetan lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari egoki diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan, foru lege hau ahalik eta ondoen aplikatze eta garatze aldera.

Azken xedapenetan bigarrena. Kalte fisiko edo psikikoengatik kalte-ordainen nahiz kalte materialen eta laguntza ekintzen eskabidea justiziarren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusi- an aurkeztuko da, gertakariaren egunetik hasi eta Nazioko Gobernuaren ebazpenetik urtebetera bitarte, edo, kalte fisiko eta psikikoen kasuan, sendatu arte edo ondorioen zenbaterainokoa ezarri arte. Foru lege hau indarrean sartu aurretik gertatutako terrorismo ekintzen kasuan, eskabidea aurkezteko epea 2012ko abenduaren 31n bukatuko da.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra; halere, hori ez da oztopo izanen bertan xedatutakoa 1960ko ekainaren 27tik aurrerako gertakariari aplikatzeko.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburu izateko Iruñearen hautagaitzari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburu izateko Iruñearen hautagaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Europako 2016ko Kultur Hiriburu izateko Iruñearen hautagaitzari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin:

Zioen azalpena

Europako Kultur Hiriburu izateko Hautagai diren Hirien Elkarteak xede du Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitza aurkeztu duten edo parte hartu duten hirien eta kultur eragile publiko eta pribatuen artean kultur lankidetzaren dinamizazioa, eta kultur gertakari garrantzitsu horri buruzko eztabaidagune bat eratzea. Elkarte hori gizarte zibilaren ekimen bat da, eta 2008an eratu zen, Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioarekin lankidetzan.

Iruña elkarte horretako kide da, Europako herrialde ezberdinetako beste hamabost hirirekin

batera: Espainiako bederatzita hiri, Poloniako hiru, Italiako bi, Belgikako bat eta Txekiako beste bat.

Elkartearen jardueretako bat da "Zure hautagai gogokoena" izeneko iritzi-inkesta. Gaur den egunean, inkestaren emaitza honako hau da, "candidatecities.com" webgunean jakinarazten denez eta Foru Komunitateko hedabideek oihartzun handiz jaso zuten:

– Oviedo: 443.779 boto, guztira emandako botoen ehuneko 15,61.

– Santander: 427.654 boto, ehuneko 15,04.

– Cáceres: 336.537 boto, ehuneko 11,84.

Jarraian doaz Kordoba, Málaga, Zaragoza, Burgos, Tarragona, Las Palmas, Cuenca, Donostia, Segovia, Alcalá de Henares, Murtzia eta Iruña. Iruña, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua, azkeneko postuan dago, emandako boto guztien ehuneko 1,49rekin. Poloniako Torun hiria ere, zeinak Iruñearekin elkar hartu baitu hautagaitzarako, ez dago oso egoera itxurosoan, webguneko bozketetan Poloniako hirietatik azkena baita. Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Zer deritzezu Europako Kultur Hiriburu izendapena eskuratze aldera Iruñeko Udalak jorraturiko ekintzei?

- Zer deritzezu Europako Kultur Hiriburu izateko Iruñearen hautagaitzaren mesedetan Nafarroako Gobernuak jorraturiko ekintzei?

- Nafarroako Gobernuaren iritziz, Iruñeak inolako aukera errealik ba al du 2016ko Europako Kultur Hiriburu bihurtzeko?

- Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartzeko asmorik ba al du hiriburutza hori eskuratzeko aukerak areagotzeko?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko zer neurri haurtuko dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Antsoain eta Barañaingo herritarrek beren liburutegien onurak jaso ahal izaten ditzaten.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer neurri haurtuko dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Antsoain eta Barañaingo herritarrek beren liburutegien onurak jaso ahal izaten ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura kontseilari Juan Ramón Corpas jaunak apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Antsoain eta Barañainek berriki liburutegi berriak eraiki dituzte, Estatuko Funtsetik heldutako diruarekin, baina liburutegi horiek jendeari ireki ezinean gertatu dira, ez baitaude ekipamendurik. Nafarroako Gobernuak laguntza eman izan die Nafarroako udalei kulturagune horien ekipamendurako. Bestalde, liburutegiak dira herritarren oniritziarik eta erabilerarik handiena izaten duten zerbitzu-etako bat.

Zer neurri hartu behar ditu Kultura eta Turismo Departamentuak, Antsoain eta Barañaingo herritarrek lehenbailehen jaso ahal izaten ditzaten beren liburutegien onurak?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste ote duen lehentasun handi-agoa duela Sanferminetako Museoak Lanbide Heziketako ikastetxeak ekipamenduz hornitzeak baino.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste ote duen lehentasun handiagoa duela Sanferminetako Museoak Lanbide Heziketako ikastetxeak ekipamenduz hornitzeak baino.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak honako zirkular hau igorri du, Hezkuntza Departamentuaren bitartez:

“Egoera ekonomiko berria dela-eta, Berrikuntza Teknologikoaren eta Lanbide Heziketaren Ataletik zure ikastetxeari esleitu zaizkion ekipamenduak ordaintzeko modua erabakitzeke dagoelarik, gerarazi egin da ekipamendu horien erosketa, kontrakoa jakinarazten zaizuen bitartean.

Eskatzen dizuegu eginiko eskaerak bertan behera uztea; horiei eutsiz gero, ikastetxeek beren gain hartu beharko dute ordainketa.

Zuen esanetara gauzkazue edozein gauza argitzea nahi izanez gero.

Adeitasunez”

Zirkular hori ikusirik:

• Nafarroako Gobernuak uste du lehentasun handiagoa duela Sanferminetako Museoak, Lanbide Heziketako ikastetxeak ekipamenduz hornitzeak baino?

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Entzierroaren eta Sanferminen Museoan eginen diren jarduketei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko apirilaren 14an egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Entzierroaren eta Sanferminen Museoan eginen diren jarduketei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko martxoaren 5eko 22 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Partikularren eta Iruñerriko udalen arteko 2005etik 2008ra bitarteko hirigintza-hitzarmenei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009eko urriaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak partikularren eta Iruñerriko udalen arteko 2005etik 2008ra bitarteko hirigintza-hitzarmenei buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009eko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Partikularren eta Iruñerriko udalen arteko 2005etik 2008ra bitarteko hirigintza-hitzarmenei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Egindakoaren laburpena (15. or.).

I. Sarrera (16. or.).

II. Hirigintza-hitzarmenak eta Iruñerria (17. or.).

II.1. Partikularrekin egindako hirigintza-hitzarmenak (17. or.).

II.2. Iruñerria (17. or.).

II.3. Hirigintza eta Iruñerria (19. or.).

III. Helburua (20. or.).

IV. Norainokoa (20. or.).

V. Ondorio orokorrak eta gomendioak (21. or.).

EGINDAKOAREN LABURPENA

Comptos Ganberak, 2007 eta 2009rako dauzkan jarduera programen arabera, erregularitasun-fiskalizazioa egin du “partikularren eta Iruñerriko udalen arteko hirigintza-hitzarmenak (2005etik 2008ra bitarte)” direlakoei buruz.

Partikularrekiko hirigintza-hitzarmenak sektore pribatuak hirigintza-jardueraren garapenean duen parte-hartzearen adierazgarri dira, eta hirigintza-zuzenbidearen esparruko borondate-adostasun batean dute oinarria; izan ere, ados jartzen direnak administrazio publikoak –kasu honetan Iruñerriko udalak– eta hirigintza-eskubide edo -interesen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izaten dira.

Iruñerria Foru Komunitatearen erdialdean dago, Iruñeko hiria du euskarri nagusitzat, eta 330.000 biztanle inguru ditu; ia-ia Nafarroa osoko biztanleen erdiak.

Gure xedeen ikuspuntutik, Iruñerria deritzon eskualdea Iruñerriko Hirigintza Arauetan deskribatuta dagoen “erakundea” da. 28 udalerrik osatzen dute, eta oso gizarte- eta ekonomia- nahiz biztanle-egitura heterogeneoa eta askotarikoa dauka, biztanle-gune handiekin batera biztanle gutxikoak baitaude, bai eta, ildo beretik, eremu guztiz urbano eta industrializatuekin batera guztiz landatarrak diren eremuak ere.

Ganberak, lan honen bidez, helburu hauek lortu nahi izan ditu:

A) Informazioa lortzea Iruñerriko udalen eta partikularren artean 2005etik 2008ra bitarte izandako hirigintza-hitzarmenen bidezko jarduerari buruz.

B) Aipatutako udalek partikularrekin izenpetutako hitzarmenak formalizatu, garatu eta betetzean aplikatzekoa den arautegia bete dela egiaztazea.

C) Hitzarmenen kudeaketan aplikatutako prozedurak aztertzea.

Hauexek dira ondorioak:

- Fiskalizatutako epean (2005-2008), eskualdeko toki-entitateek, guztira, 114 hirigintza-hitzarmen sinatu dituzte partikularrekin, eta hitzarmen horiei

esker 32,5 milioi euro inguruko diru-sarrera izan dute –zenbateko hori epealdiko aurrekontu-sarrera guztien ehuneko 2 da–. Kopuru horretatik, hauek azpimarratzen ditugu:

- Udalen lurzoru-ondareko lursailak irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzenean besterentzeko hitzarmenen bidez, toki-administrazioek ia 32.000 m² eman dituzte etxebizitza babestua sustatzeko, eta 23 milioi euro inguru jaso dituzte hori egiteagatik.

- Hirigintza-aprobetxamenduen ehuneko 10 derrigorrez lagatzeari lotutako monetarizazioa dela eta, gutxi gorabehera 4 milioi euro lortu dituzte.

- Hitzarmen horiek, daukaten tipologia nagusia kontuan hartuta, kudeaketa-arlokoak dira funtsean; hau da, hirigintza errazago kudeatu eta gauzatzeko izenpetzen dira. Xedeari erreparatuta, hitzarmen aipagarrienek honako hauek dauzkate gaitzat: aprobetxamenduen ehuneko 10aren derrigorrezko lagapenaren monetarizazioa; udalen lurzoru-ondareko lursailen besterentze zuzen eta kostu bidezkoa, babes publikoko etxebizitza sustatzeko; eta planeamenduaren aldaketa zehatzak (aldaketak lurraldearen klasifikazioan, erabileretan, eraikigarritasunean...).

- Izapidetu eta gauzatzean legea betetzeari dagokionez, ganbera honek salbuespen hauek atzeman ditu:

- Ez da beti behar bezala justifikatzen hitzarmenaren xede den behar eta interes publiko edo soziala; hau da, zer onura dakarkion gizarteari hitzartutako jarduerak. Justifikazio hori, gainera, beharrezkoa da, hitzarmen gehien izapidetzea partikular interesdunek eskatuta hasten dela kontuan hartzerako.

- Ohartu gara hitzartutako eragiketa konplexuetan ez dela azterketa ekonomiko zorrotzik egoten jarduerak berekin dakarren kostu/onurari buruz. Horrek zaildu egiten du hitzarmenetatik ondorioztatzen diren kontraprestazioen beharrezko eta aginduzko orekaren azterketa.

- Argi eta garbi ikusten da eskualdean aprobetxamenduen ehuneko 10aren derrigorrezko lagapena monetarizatzeko politikaren alde egiten dela eta ez lurra lortzeko aukeraren alde. Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea lehendabiziko aukera hori, foru-arautegiaren arabera, ezohikoa dela, eta betiere behar bezala justifikatu beharrezkoa.

- Beti ez dira justifikatzen eta behar bezala babesten hirigintza-aprobetxamenduak ebaluatze-ko txosten teknikoak.

- Desegokiro erabiltzen da hirigintza-hitzarmenaren figura hirigintza-lan jakin batzuk esleitzeko, eta kontratazio publikorako arautegiak eskatzen dituen konkurrentzia- eta publizitate-printzipioak urratu egiten dira.

- Udal-ondareko ondasun edo eskubideak ukitzen dituzten itunak dauzkaten hitzarmenetan, beti ez da formalizatzen horrelako eragiketetan aplikatzekoa den legediak araututako baldintzak eta dokumentuak jasotzen dituen administrazio-espediente egokia.

- Hitzarmenetako prozedurazko alderdiei dagokionez, nabarmendu behar dugu akatsak izan direla Hitzarmen Artxibo eta Erregistroaren kudeaketan –hura funtsezko tresna izan arren publizitate- eta gardentasun-printzipioak betetzeko– eta Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroaren kudeaketan –nahiz eta erregistro horrek xede garrantzitsuak izan lurraldearen kudeaketan–.

I. SARRERA

Comptos Ganberak, 2007 eta 2009rako dauzkan Jarduera Programen arabera, erregularatasun-fiskalizazioa egin du “partikularren eta Iruñerriko udalen arteko hirigintza-hitzarmenak (2005etik 2008ra bitarte)” direlakoei buruz.

Txostenaren xedeari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea (LAHFL).

Halaber eragiten du txostenaren xede den jardueran Estatuko honako araudiak:

- 6/1998 Legea, apirilaren 23koa, Lurraldearen Erregimenari eta Balorazioei buruzkoa.

- 2/2008 Legegintzako Errege-dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Landa-lana, jarduera programei jarraiki, bi faseetan egin zen:

- a) Lehen fasea (2005 eta 2006ko ekitaldiei zegokien) 2007ko otsailetik ekainera bitartean egin zen.

- b) Bigarren fasea (2007ko eta 2008ko ekitaldiei zegokien) 2009ko martxotik uztaileira bitartean egin zen.

Lana bi auditorek, abokatu batek eta auditoria-ko bost teknikariek egin dute; gainera, Comptos Ganberako informatika- eta administrazio-zerbitzuen laguntza izan dute.

Txostena bost epigrafetan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean ohar labur batzuk agertzen dira Iruñerriko hirigintza-hitzarmenei buruz; hirugarren eta laugarren epigrafeetan egindako lanaren helburuak eta norainokoa adierazten dira. Azkenik, bosgarren epigrafean lan horren ondorio orokorrak jasotzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Iruñerriko udal-tako toki-entitateetako langileei lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. HIRIGINTZA-HITZARMENAK ETA IRUÑERRIA

II.1. PARTIKULARREKIN EGINDAKO HIRIGINTZA-HITZARMENAK

Kontuan hartuta txostena partikularrekin egindako hitzarmenei dagokiela, hirigintza-hitzarmena partikularrek hirigintza-jardueraren garapenean duten parte-hartzearen adierazpena da, eta hirigintza-zuzenbidearen esparruan borondate batzuen artean lortutako akordioa; borondate horiek administrazio publikoek eta hirigintza-eskubide edo -interesaren jabe diren pertsona fisiko edo juridiko pribatuek adierazitakoak dira.

Parte-hartze pribatu hori LAHFLko 6. artikuluan jasotako printzipioan kokatzen da; izan ere, haren arabera, hirigintzan eta lurraldearen antolamenduan eskumena duten administrazio publikoen betebeharrak da jarduera horren garapenean ekimen pribatua erraztu eta sustatzea. Hori guztia herritarren esku-hartzearen mende ipinita, aginduzkoa baita jendaurreko erakusketa eta Hitzarmenen Artxibo eta Erregistroarako sarbide librekoa izatea.

LAHFLn, hirigintza-hitzarmenak honela sailkatzeko dira haien xedea irizpidetzat hartuta:

- Planeamendurako hitzarmenak: hitzarmena formalizatzen denean indarrean dagoen hirigintza-planeamendua onestea, aldatzea edo berrikustea dute xedetzat.

- Betetzeko edo kudeatzeko hitzarmenak: indarreko planeamendua kudeatu eta betetzeko baldintzak eta oinarriak ditu xedetzat.

- Hitzarmen mistoak, berriz, hirigintza-planeamendua onestea edo aldatzea xedetzat izateaz gain, planeamendua betetzeari buruzkoak dira.

Honako hauek dira hirigintza-hitzarmenetan jasotako kontraprestazio edo konpromisoetako batzuk:

a) Administrazio Publikoarenak:

- Planeamendua onesteko edo aldatzeko konpromisoa, jarduera hori berariaz arautzen duten hirigintza-arauak betez.

- Bolumen eraikigarria lursail jakin batzuetatik beste batzuetara aldatzea.

- Eraikigarritasun-bolumen jakin bat aitortzea.

- Lurzoruaren klasifikazioa eta kalifikazioa aldatzea.

- Etorkezuneko lizentziak ematea.

b) Partikularrenak:

- Udalari diru-kantitate bat ematea.

- Lurrak doan lagatzea.

- Legezko minimoetatik gorako lagapenak.

- Babestutako etxebizitzak epearen barruan eraikitzea.

- Sarbideak egitea.

- Hirigintza-gastuak ordaintzearen ordean lurrak lagatzea.

- Hirigintza-proiektuak idaztea eta gauzatzea.

Hirigintza-hitzarmenek muga hauek dituzte:

- Ezin dira izan ordenamendu juridikoaren aurkakoak, ordenamendu hori osorik hartuta. Itunak ezin dira izan aginduzko arauen aurkakoak, eta ezin dituzte konprometitu araututako administrazio-eskumenak.

- Itunek beti egon behar dute justifikatuta eta hirigintza-jardueraren ekitaldiko interes publikoaren eskakizunei erantzun behar diete.

- Itunak ezin dira izan administrazio onerako printzipioen aurkakoak, eta oreka gorde behar da hark berekin dakartzan kontraprestazioen barneko eta kanpoko balioaren artean, kontraprestazioen balioa neurtzeko parametroak tresnaren erabilpenean lortutako efikazia eta eraginkortasuna eta hirigintza-jarduera publikoaren berezko helburuen zerbitzura egotea izanik.

Nafarroan, hirigintza-hitzarmenak, oro har, 35/2002 Foru Legeko 23. artikulutik 26. artikulura bitartekoek arautzen dituzte; foru-lege hori abenduaren 20koa da, Hirigintzari eta Lurraldearen Antolaketari buruzkoa.

II.2. IRUÑERRIA

Iruñerria izeneko eskualdea Foru Komunitatearen erdialdean dago, Iruñeko hiria du euskarri nagusizat, eta 330.000 biztanle inguru ditu; ia-ia Nafarroa osoko biztanleen erdiak.

Eskualdean toki-entitate asko daude eta agintari publikoek, orain arte, ez dute formalki onartu haien izatea. Gure helburuetarako, Iruñerriko Hirigintza Arauetan deskribatutako "entitatea" hartu

dugu eskualdetzat (arauok martxoaren 22ko 80/1999 Foru Dekretuak onetsi zituen behin betiko) ⁽¹⁾, eta 28 udalerrri hauek osatzen dute eskualde hori:

Udala	Biztanleak 2008an	Udala	Biztanleak 2008an
Antsoain	10.340	Noain	6.222
Aranguren	6.820	Ezkabarte	1.637
Barañain	22.193	Galar	1.568
Beriain	3.536	Uharte	5.505
Bermobeiti	3.615	Itza	910
Bermiozar	8.899	Xulapain	543
Bidaurreta	135	Oltza	1.543
Biumun-Olkotz	209	Ollolibar	276
Burlata	18.504	Orkoien	2.947
Ziritza	112	Iruña	197.275
Zizur Zendea	2.838	Tiebas-Muru Artederreta	616
Etxami	68	Atarrabia	10.462
Etxauri	567	Zabaltza	212
Eguesibar	9.137	Zizur Nagusia	13.312

Ondokoa da gure hautaketa hori justifikatzeko arrazoi nagusia: Iruñerriko hirigintza arauetan zerbitzuen eta beharrianen arabera Iruñerria osatzen duten entitateak agertzen dira, eta definizio hori egokiagoa da lan honen ondorioetarako bestelako definizio sektorialagoak baino. Izan ere, hirigintza-arauek honela definitzen dute Iruñerria: "populazio-guneen multzo bat da, horien artean lurraldeko hiriburua dagoela, eta ezaugarri fisiko, hirigintzazko eta sozio-ekonomiko propio eta komunak dauzkan eremu bat osatzen du..." Hori

guztia ahaztu gabe eskualdeko entitate handi ia guztiak mugakideak direla eta hiri-egitura bakarra osatzen dutela.

Egitura sozio-ekonomikoa eta populazioarena oso heterogeneoa eta ezberdina da: batera daude populazio-gune handiak eta biztanle gutxiko herri txikiak, edo eremu gutziz urbano eta industrializatuak landa-eremuen ondo-ondoan.

Hona 2008ko populazioaren osaera:

Biztanleak	Udalerrri-kop.	Biztanleria 2008-01-01	Eskualdeko biztanleriaren ehunekoa
+ 50.000	1	197.275	60
5.001 – 50.000	10	111.394	34
- 5.000	17	21.332	6
Guztira	28	330.001	%100

(1) Arauak luzatuta, Lurraldearen Antolaketa Plana onetsi arte.

Hau da, biztanleen ehuneko 94 hamaika udalerritan bizi da; biztanleen ehuneko sei, berriz, 17 udalerriri atxikita daude.

Azalerari dagokionez, herrien batez besteko neurria txikia da $-20,9 \text{ km}^2$ -, eta azpimarragarria da zazpi herri soilik direla 40 km^2 -tik gorakoak eta zortzik 5 km^2 baino gutxiago dituztela.

Eskualdeko populazioaren batez besteko dentsitatea kilometro koadroko 563 biztanlekoa da, baina alde izugarria dago udal batetik bestera: Barañainen kilometro koadroko 15.852 biztanle bizi dira; Ollon, berriz, 7 baino ez.

Iruñerako distantziari dagokionez, 10 km^2 -koa da batez bestekoa. Biztanle gehien duten gune guztiak Iruñearekin mugakideak dira.

2004ko ekitalditik 2007kora bitartekoetan -2007 koa da eskura dagoen azkena-, 16.067 etxebizitza eraiki dira guztira eskualdean; haietako ehuneko 63 libreak dira, eta ehuneko 37 babes publikokoak (horretako edozein erregimenetakoak). Eskualdeko udalerrri guztietan eraiki da etxebizitza librea; 16 entitatetan, berriz, ez da eraiki babes publikoko etxebizitzarik.

Iruñerriak duen beste ezaugarri bat da Iruña hiriaren erakarpen-indarra: Iruñaren zabaltzeak eragina izan du gainerako entitateetan, bai industriaren eraginetarako bai etxebizitzarako, garraiorako, desplazamenduetarako, aisiarako...

II.3. HIRIGINTZA ETA IRUÑERRIA

Beste ezer baino lehen, komeni da azpimarratzea LAHFL legean esaten dela hura indarrean jarri zenean indarreko zeuden udal-planek hiru urte zituztela (2006. urtera arte) planak lege horretan aurreikusitakoekin homologatzeko.

Ia udalerrri guztiak daude aipatu LAHFL horretako aurreikuspenetara egokitzeko edo homologatzeko fasean.

Horrenbestez, udalek eta Nafarroako Gobernu-ko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako informazioaren arabera, 2008an, eskualdea osatzen duten entitateak egoera honetan daude hirigintza-planeamenduari dagokionez:

- Hiru udalerririk ez dute planeamendu-tresnarik: Ziritza, Etxarri eta Txulapain. Lehendabiziko bietan, hiri-lurra mugatzeko proiektuak dauzkate (1980 eta 1981 artean onartuak); Txulapainen, berriz, kontzejuetako batzuek baino ez dute hiri-lurren mugaketa. Hala ere, hiru kasuetan Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua (LOEE) onartu dute, eta hori, indarreko LAHFLko 71. artikulua arabera, Udal Plan Orokorra izapidetzeko lehen urratsa da.

- Arau subsidiarioei dagokionez, sei udalerrri baliatzen dira haietaz hirigintza-antolamendua egiteko; 1991 eta 1997 artean onartu zituzten. Berriozar, Itza eta Zizur Zendeak beren LOEE delakoa onartu dute; Aranguren eta Etxaurin izapidetzen ari dira dokumentu hori, eta Bidaurretan oraindik ez dira hasi izapidetzen.

- Hiri antolamendurako plan nagusiei dagokionez, Barañainek, Burlatak eta Atarrabiak antolamendu-tresna hori erabiltzen dute. Burlatak eta Atarrabiak kasuan kasuko LOEE onartuta daukate. Barañainen, oraindik hasierako fasean dago plan-teamendu berriaren idazketa.

- Gainerako 15 udalerriek Udal Plana daukate. Udalerrri horietako hiruk $-$ Eguesibar, Galar eta Noain (Elortzibarra) $-$ aurkeztua dute aipatu departamentuan Lurraldeak Okupatzeko Estrategia eta Eredua.

Toki-entitateek hirigintza kudeatzeko gehien erabiltzen duten formula toki-entitatearen zerbitzu administratiboak erabiltzea da; gehienetan, ordea, bereziki neurri txikieneko kasuetan, entitateaz kanpoko aholkulariak erabiltzen dira.

Udal hauek kudeatzeko beste bide batzuk erabiltzen dituzte:

Udala	
Iruña	Erakunde Autonomoa
Barañain	Tokiko merkataritza-sozietate publikoa
Beriain	Tokiko merkataritza-sozietate publikoa
Burlata	Tokiko merkataritza-sozietate publikoa
Eguesibar	Tokiko merkataritza-sozietate publikoa
Uharte	Tokiko merkataritza-sozietate publikoa

Aurreko sozietateei dagokienez, hauek azpimarratzen ditugu:

- Barañaingoak ez du inolako jarduerarik egin sortu zenetik.
- Burlatakoak, Eguesibarkoak eta Uhartekoak, gainera, kapital pribatuko beste merkataritza-sozietate misto batzuetan parte hartzen dute hirigintza-garapen jakin batzuk kudeatzeko. Horri gagozkiola, Comptos Ganbera honek udalerrri horiei eta kontu horri buruz egindako txostenetara jotzeko eskatzen dugu.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, honako honen erregularitasun-fiskalizazioa egin dugu: “partikularren eta Iruñerriko udalen arteko hirigintza-hitzarmenak (2005etik 2008ra arte)”

Guk egindako lanak helburu hauek izan ditu:

A) Informazioa lortzea Iruñerriko udalen eta partikularren artean 2005etik 2008ra bitarte izandako hirigintza-hitzarmenen bidezko jarduerari buruz.

B) Iruñerriko udalek partikularrekin izenpetutako hitzarmenak formalizatu, garatu eta betetzean aplikatzeko den arautegia bete dela egiaztatzea. Bereziki:

- Hitzarmen horien helburua interes orokorra dela egiaztatzea; interes orokor hori behar bezala justifikatuta dago.

- Planeamenduaren onarpen eta/edo aldaketetan aplikatzeko den arautegia eta jarduteko aukeraturako sistema baliatzen direla egiaztatzea.

- Hitzarmenetan adierazitako alderdien kontra-prestazioak edo konpromisoak legearen arabera koak diren, zorrotz bete diren eta Administrazioak jasotakoak gutxienez arautegiak ezarritakoak izan diren ikustea.

- Hirigintza-aprobetxamendua (lurrak edo balio bereko diru-kantitatea) administrazioei benetan laga zaiela eta haren zertarako edo aplikazioa egiaztatzea.

C) Hitzarmenen kudeaketan aplikatutako prozedurak aztertzea. Zehazki:

- Hitzarmenen Artxiboa eta Erregistroa egokiro egiten dela egiaztatzea.

- Barne-kontrol ekonomiko eta legalaren funtzionamendua.

- Kontabilitate-erregistro egokia, dokumentu bidezko justifikazioa, balioztatze zuzena eta inbentarioa egiaztatzea eta, hala egokituz gero, Udalen Lur Ondarean sartzea.

Txostenarekin batera, kudeaketarako eta legeak betetzeko hainbat gomendio jasotzen dira, arlo honetan tokian tokiko kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen baitira.

IV. NORAINOKOA

Finkaturiko helburuak kontuan harturik, gure lanaren norainokoa hau izan da:

- Lehenik eta behin galdera-sorta bat bidali zitzaizen toki-entitateei, nagusiki informazio hau eskatzeko:

- Zein den indarreko planeamendu-araua eta, hala egokituz gero, nola dagoen LAHFLrekiko eguneratze-/homologatze-prozesua.

- Nork kudeatzen duen hirigintza udalerrian (Udalak berak, erakunde autonomo batek edo enpresa publiko batek).

- 2005-2008 aldiaren sinatutako hirigintza-hitzarmenen kopia eta haien egungo egoera.

- Hirigintza-hitzarmenen aginduzko erregistroa ondo egiten den.

- Galdera-sorta hau eskualdeko udal guztietara bidali zen, Comptos Ganberak, azterketaren xede den aldiaren barruan, hirigintza-saila fiskalizatu zuen udaletara izan ezik: Orkoien, Galar eta Uhartea; aurreko lanetan jasotako hitzarmenei buruzko ondorioak kontuan hartu dira txosten hau egiteko. Galdera-sorta jaso zuten toki-entitate guztiek erantzun zieten galderei

- Udal hauek partikularrekin hirigintza-hitzarmenik ez dutela eginga jakinarazi diote ganbera honi: Bidaurreta, Ziritza, Etxarri, Txulapain eta Zabaltza.

- Galdera-sortari emandako erantzunak aztertu ondoren, udal-lagin bat aukeratu zen, eta udal horietan *in situ* aztertu ziren bidalitako hitzarmenak justifikatzen zituzten espedienteak. Aukeraketa irizpide hauek erabili ziren: entitate bakoitzaren hitzarmen-kopurua, haien garrantzi kuantitatiboa eta “a priori” izan zitekeen fiskalizazio-arriskua. Hauek izan ziren aukeraturako udalak (ia guztizkoaren ehuneko 40):

- Aranguren

- Eguesibar

- Barañain

- Noain (Elortzibarra)

- Berriobeiti
- Biurrun-Olkotz
- Burlata
- Zizurko Zendea
- Itza
- Iruña
- Atarrabia

• *In situ* egindako ikuskatze horretan, hitzarmenaren espedientea jasotzen duen dokumentazioa aztertu da, hala nola egindako eragiketak eta haien justifikazioa, Comptos Ganbera honetako Aholkularitza Juridikoak egindako gidaren arabera. Aukeratutako hitzarmenak, guztira, udalek ganbera honi jakinarazitakoen ehuneko 77 dira.

• Bestalde, landa-lana gauzatzean diruzko zenbaketa egin ahal izan zen hitzarmenei dagokien ondorioan jasotzen den eragin ekonomikoaren zenbatekoa. Beste kasu batzuetan ezin izan da zehaztu, dela ez direlako ebaluatzen, dela erreferentziatzen diruzkoak ez diren beste neurri-unitate batzuk erabiltzen direlako, dela etorkizunean sortuko direlako baldintza batzuk betez gero.

Txosten honetan hirigintza-hitzarmen bidezko jardueraz jasotako ondorio nagusiek bi iturri izan dituzte: *in situ* egindako aipatu berrikuspen-lana eta ganbera honek Galarko Udalean (2005) eta Uharterkoan (2007) egindako fiskalizazio-txostenak.

Metodologia gisa aplikatu dira Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-

ko Batzordeak onetsi eta Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatuta dauzkan sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioak eta arauak, eta beharrezkotzat jotako prozedura tekniko guztiak erabili ditugu, lanaren helburuak aintzat hartuta.

Ondorioen aurkezpena orokorra denez, eta kasu edo udal zehatzetara ez jotzea erabaki denez (ondorioak, oro har, baliagarriak direlako aztertutako kasu gehienentzat), txosten honen tramitazioan ez dira aplikatu eztabaida teknikoaren eta alegazioen faseak.

V. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Eginiko lanaren helburuak kontuan hartuta, ondorio hauek atera dira:

A helburua. Iruñerriko udalen eta partikularren artean 2005etik 2008ra bitarte izandako ohiko hirigintza-jarduera.

1. Gure lanaren norainokoaren arabera, 2005etik 2008ra bitarteko aldirian, guztira, 114 hirigintza-hitzarmen sinatu ziren Iruñerriko udalen eta partikularren artean.

Haien tipologia nagusia eta, hala egokituz gero, eskualdeko udaletan izan duten eragin ekonomikoa kontuan hartuta, honela sailkatzen dira:

Hitzarmen-mota	Hitzarmen-kopurua	Aitortutako obligazioak	Aitortutako eskubideak
Planeamendua	9		
Kudeaketa	88	528.564,59	28.287.200,81
Mistoak	17		4.659.986,65
Guztira	114	528.564,59	32.947.187,46

Hau da, aztertutako epean, sinatutako hitzarmenei esker 33 milioi euro inguru sartu dira udal-tako diru-kutxetan; zenbateko horren jatorria, nagusiki, hau da: alde batetik, kudeaketa-hitzarmenak eta, zehazkiago, udalen lurzoru-ondareko lursailen besterentze zuzen eta kostu bidezkoa; eta, bestetik, aprobetxamenduen ehuneko 10 udalari derrigorrez lagatzeari lotutako monetarizazio-hitzarmenak.

Hitzarmenetatik datozen gastuak 0,5 milioi eurorenak dira eta, nagusiki, udalek hirigintza-obra jakin batzuk finantzatzeko partikularrekin egindako akordioetan dute jatorria.

Hitz batean, partikularrekiko hitzarmenei lotutako eragin ekonomiko garbia ia 32,5 milioi eurokoa

da. Zenbateko hori eskualdeko udal guztien artean 2005etik 2008ra bitarteko aldirian izandako aurrekontu-sarrerekin eta inbertsio-gastuekin (6. kapitulu) erlazionatzen badugu, honako hau da ondorioa:

• Hitzarmenengatik lortutako sarrerek eskualdeko udalen aurrekontu-sarrera guztien ehuneko 2 dira.

• Eskualdeko inbertsio-gastuen ehuneko 5 partikularrekiko hitzarmenei esker lortutako sarrera atxiki bidez finantzatu da.

2. Hitzarmenen xedeari dagokionez, hitzarmenen egoera askotarikoa da eta, horregatik, zaila da haien aurkezpen sistematiko eta eskematikoa egitea.

Hala ere, aztertutako hitzarmenetan gehien errepikatzen diren edukiak aipatuko ditugu:

- Aprobetxamenduen ehuneko 10aren derrigorrezko lagapenaren monetarizazioa.

- Udalen lurzoru-ondareko lursailak zuzenean eta kostu bidez besterentzea irabazi-asmorik gabeko entitateei babes publikoko etxebizitza egiteko.

- Hainbat planeamendu-molde sustatzeko konpromisoak.

- Planeamendu-barruko aldaketak (lurzoruaren klasifikazioa aldatzea, haren erabilera, eraikigarritasuna...).

- Lurren trukaketak.

- Hirigintza-lanak egitea.

B helburua Iruñerriko udalek partikularrekin izenpetutako hitzarmenak formalizatu, garatu eta betetzean aplikatzeko den arautegia bete dela egiaztatzea.

3. Egindako lanean, salbuespen hauek atzeman dira:

- Ez da beti behar bezala justifikatzen hitzarmenaren xede den behar eta interes publiko edo soziala; hau da, zer onura dakarkion gizarteari hitzartutako jarduerak. Justifikazio hori, gainera, beharrezkoa da, hitzarmen gehien tramitazioa partikular interesdunek eskatuta hasten dela kontuan hartzea.

- Ohartu gara hitzartutako eragiketa konplexuek ez dela azterketa ekonomiko zorrotzik egoten jarduerak berekin dakarren kostu/onura erlazioagiri buruz. Horrek zaildu egiten du hitzarmenetatik ondorioztatzen diren kontraprestazioen beharrezko eta aginduzko orekaren azterketa.

- Espedienteetan ez dago beti behar bezala kreditatuta zein den Administrazioarekin itundu den partikularren nortasun juridikoa, ez eta hari gaitasunik eza eta bateraezintasuna lekarzkioketen arazoak dauden ala ez.

- Argi eta garbi ikusten da eskualdean aprobetxamenduen ehuneko 10aren derrigorrezko lagapena monetarizatzeko politikaren alde egiten dela. Hori dela eta, komeni da hauek zehaztea:

- LAHFLk ezohikotzat jotzen du aukera hori.

- Kasu bakoitzean argudiatu behar da zergatik egiten den aukera horren alde. Aztertutako kasu gehienetan, partikularren ekimena izan da monetarizatzeko, eta ezerk ez du adierazten Udalak aztertu edo ebaluatu duenik monetarizazio

horren balio bereko lurra egokia zen ala ez Udalaren Lur Ondarearen xedeetarako.

- Ez dago beti monetarizazio hori behar bezala kuantifikatzen duen aditu-txostenik.

- Formalki hitzartu gabeko monetarizazio batzuk atzeman dira, LAHFLren aurreikuspenen arabera monetarizazioa formalizatzeko galda zitezkeen baldintzak betetzen ziren arren.

- Eskualdeko udalek hirigintza-aprobetxamenduen ebaluatzeko erabilitako irizpideak desberdinak dira, ez dira beti batekoak, eta haien aplikazioan ez dago beti barne-koherentziarik. Normalean, merkatuko balio teorikoei, balio katas-tralei edo hirigintza-balioei lotuta daude; horri dagokionez, komeni da azpimarratzea katastroa ebaluatzeko txostenak eguneratu gabe daudela. Bestalde, komeni da gogoraraztea 2008ko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateginak dioela udaleko lur ondareko sailak besterentzean ezinen direla esleitu, ez lehenengo transmisioan ez hurrengoetan, baldin eta prezioa lurra kasu bakoitzean babestutako etxebizitza-motan duen gehieneko eragin-balioa baino handiagoa bada.

- Desegokiro erabiltzen da hirigintza-hitzarmenaren figura hirigintza-lan jakin batzuk esleitzeko, eta kontratazio publikorako arautegiak eskatzen dituen konkurrentzia- eta publizitate-printzipioak urratu egiten dira.

- Udal-ondasunak trukatzeko planteatzen duten hitzarmenetan, beti ez da formalizatu trukerako administrazio-espedita. Horri dagokionez, komeni da adieraztea itundutako ondare-betebe-harrek edo bestelakoek ez dutela salbuesten hitzarmen barruko administrazio-egintzei berariaz aplikatzen zaizkien legezko baldintzak eta prozedurak bete behar izatetik.

- Hiri-lurrean eragina duten eta hura finkatu gabeko hiri-lurtzat jotzea dakarten hitzartutako planeamendu-aldaketak aldaketa egiturazaila gisa sailkatu behar dira, indarrean dagoen ordenazioa funtsean aldatzea aurreikusten bada, edo birmoldaketarako nahiz barne-erreformarako aurreikusten diren jarduerak direla eta beharrezkoa bada ukitutako artean berdin banatzeko eragiketak egitea. Horrek ekarri beharko du egikaritze-unitateak sortzea, jarduera sistematikoen bidez kudeatzea eta aprobetxamenduen ehuneko 10 udalari koerlatiboki lagatzea.

Hauek gomendatzen ditugu:

Hirigintza-arautegia zorrotz errespetatzea, partikularrekiko hirigintza-hitzarmenak izapidetu, onetsi eta betetzean errespetatu behar diren funtsezko alderdiei dagokienez.

Interes publikoa bermatzea eta justifikatzea hitzartutako jardueretan.

Neurri egokian babestea hitzarmenetik ondorioztatutako kontraprestazioen oreka administrazioaren eta partikularren artean.

Behar bezala justifikatzea hitzarmenen oinarrian dauden ebaluazio-txostenak.

Hitzarmenetatik ondorioztatzen edo haietan jasotzen diren eta administrazio-egintzetan aplikatzekoak diren erabaki arau-emaile espezifikoak betetzea, haiek baliagarriak izan daitezen eskatutako legezko baldintzak betetzen direla ziurtatzea eta, hala egokituz gero, espedienteak horrelako egintzak legezkoak izateko ezarritako aginduzko arauen arabera izapidetzea.

C helburua Hitzarmenen kudeaketan aplikatutako prozedurak aztertzea.

4. Hitzarmenen Artxiboa eta Erregistroa. Gairen berezitasuna dela eta, LAHFLk arautzen du derrigorrezkoa dela artxibo eta erregistro espezifiko eta entitateak izenpetutako hitzarmenekiko loturarik gabeko bat izatea. Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

- Beti ez dira behar bezala artxibatzen hitzarmen bati lotutako dokumentuak eta txostenak, eta horren ondorioz zaila da haiek izapidetzea, kudeatzea, jarraitzea eta barne- nahiz kanpo-kontrola egitea. Era berean, horrek eragina dauka Hitzarmenen Erregistroaren beraren kudeaketan.

- Zirkularizatutako udalen ehuneko 40 inguruk ez du betetzen aginduzko Hitzarmen Erregistroa, nahiz eta horren funtsezko helburua, hitzarmen horiei erantsitako testua eta dokumentazioa erregistratzeaz eta gordailutzeaz gain, eragiketa horien gardentasuna eta publikitatea bideratzea izan.

Aztertutako erregistroetatik, halaber, nabarmentzekoa da ez dagoela inolako uniformetasunik haien osieran, egituran eta eramateko moduan; ziur aski, hori LAHFLk gaia gutxi araututa izatearen ondorio da.

Hauek gomendatzen ditugu:

Toki-entitateek betetzea hitzarmenen erregistroaz indarreko arautegian jasotako mandatua.

Hitzarmenen kontrol eta jarraipen egokia egiteko aukera emanen duen artxibo-sistema bat aplikatzea.

Nafarroako Gobernuak argibide batzuk eman behar ditu toki-entitateen hitzarmenen erregistroei eskatu behar zaizkien egitura eta gutxieneko edukia finkatzeko.

5. Zerbitzu juridikoen eta udalen esku-hartzearen barne-kontrola. Ikusi da desberdin jokatu dutela barne-kontrolerako organoek hirigintza-hitzarmenei lotutako aholkularitza- eta kontrol-funtzioak betetzean eta, kasu jakin batzuetan, argi geratu da ez zekitela zein ziren ondorioak.

Egoera horrek, gainera, zaildu egiten du Udalak jaso beharreko baliabideen erregistro eta jarraipena, hala nola haren aurrekontu-aurreikuspenak kuantifikatzea.

Gure gomendioa da udalek, hirigintza-hitzarmenak izapidetzean, kontuan hartzea barne-kontrolerako zerbitzuen presentzia eta jardura. Era berean, jardura hori aztertu eta, hala egokituz gero, arautu egin behar da hirigintza-zerbitzu publikoa zeharka kudeatzen duten udaletan.

6. Epeak. Beti ezin da egiaztatu udalek zenbatekoak eskudirutan kobratzeko eta lursailen lagapena gauzatzeko hitzartutako epeen jarraipen zorrotza egin dutenik; are gehiago, hitzarmenen batean ez dago inolako eperik adierazita.

Hauek gomendatzen ditugu:

Hitzartutako epeak zorrotz betetzea eta, hala egokituz gero, atzemandako atzerapenak behar bezala justifikatzea.

Administrazio publikoek beren eskubideen kobrantza bermatzeko dauzkaten tresnak erabiltzea.

7. Udal Lurzoru Ondarea (ULO). Oro har, ikusten da ez dela betetzen ULoren arautegia hainbat alderditan; besteak beste: hartako elementuen inbentarioan, sarrerak atxikitzean eta hartako elementuei emandako erabileraren kontrol eta segimenduan. Horri dagokionez, komeni da azpimarratzea zeinen garrantzitsua den ondare horretako elementuek hitzartutako jardueretan duten eragina.

Gure gomendioa da udalek ULO horri buruzko arautegia betetzea, eraginkorki lor daitezen LAHFLk hirigintza-tresna horri izendatzen dizkion helburu garrantzitsuak.

Azken ondorio eta laburpen moduan, hauek esanen ditugu:

- Indarreko arautegian hainbat tresna aurreikusten dira ekimen pribatua sustatzeko hirigintza-jardueraren garapenean; tresna horietako batzuk dira hirigintza-hitzarmenak

- Fiskalizatutako aldian (2005etik 2008ra bitartean), eskualdeko toki-entitateek, guztira, 114 hirigintza-hitzarmen izenpetu dituzte partikularrekin, eta horien ondorioz 32,5 milioi inguru jaso dituzte.

- Bide hori finantzaketa-iturria izan da Iruñerriko toki-entitateentzat, partikularrekiko hitzarmenen bidez lortutako baliabide guztiak, batez beste, aztertutako aldiko aurrekontu-sarrera guztien ehuneko 2 baitira; batez besteko balio horren muturretan ehuneko zero eta ehuneko 20 daude.

- Gehienetan, haien tramitazioa partikular interesdunek eskatuta hasi da.

- Beti ez da behar bezala kreditatu hitzartutako jarduerak zer onura dakarzkieten gizarteari eta, era berean, ezin izan da egiaztatu Administrazioaren eta partikularren arteko kontraprestazioen beharrezko oreka.

- Planeamendu-hitzarmenen bidez planeamenduan eta, hala egokituz gero, Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduan hasieran aurreikusitako hirigintza-garapena aldatzen da. Aldaketa horretan, halaber, eragina dauka eskualdeko toki-entitate askotako planeamendu-arau orokorren homologazio/eguneratze faltak.

- Udalen lurzoru-ondareko lursailak irabazi-asmorik gabeko entitateei kostu bidez eta zuzenean besterentzeko hitzarmenen bidez, toki-administrazioek ia 32.000 m² eman dituzte babestutako etxebizitzak sustatzeko; metro horien balioa lurzoruak babestutako etxebizitzan daukan gehieneko eragin-balioaren arabera kalkulatu da eta, horrela, ia 23 milioi euroren sarrerak izan dira. Sarrera horiek Udal Lurzoru Ondarearen helburuak bete-teari atxikita daude.

- Lurzorua lortzearen ala hirigintza-aprobetxamenduen ehuneko 10aren derrigorrezko lagapenari lotutako monetarizazioaren artean, toki-entitate ia guztiek azken hori aukeratu dute eta, horren ondorioz, 4 milioi euro inguruko sarrera izan dute.

Gehienetan, ez da justifikatzen aukera horren alde egin izana.

- Ebaluazio-txostenak ez daude beti behar bezala babestu eta justifikatuta alderdi teknikoaren ikuspegitik eta dokumentu bidez.

- Udalen lurzoru-ondareen kudeaketan dauden akatsak direla eta, zaila da jarraipen egokia egitea hitzarmen bidez lortutako zenbatekoak eta atxikitako ondasunak eraginkortasunez edo zertan erabili diren jakiteko. Era berean, Hitzarmenen Artxibo eta Erregistroaren kudeaketa okerra egiaztatu da.

Horregatik guztiagatik, hona hemen ganbera honen aholkuak:

Hitzartutako jarduera dakarren interes publiko/orokorra justifikatzea.

Babes teknikoa, bi aldeek onartutako kontraprestazioen edo konpromisoen arteko oreka bermatzeko.

Hitzarmenek ukitutako hirigintza-aprobetxamenduen ebaluazio tekniko egokia.

Hirigintza-aprobetxamenduen ehuneko 10 monetarizatzea aukeratu izanaren justifikazioa.

Hitzartutako jarduera kudeatzeko eta haren barne-kontrol ekonomiko eta legezkoa egiteko prozedurak hobetzea.

Ahalik eta gardentasun eta publizitate handiena hitzarmen hauen tramitazioan.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruña, 2009ko urriaren 16a

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde